

**Zumaiako
Udala**



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

INDARKERIA SEXISTA KASUETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

Zumaia 2026

SARRERA

Pertsona ororen eskubiderik oinarritzkoenak urratzea dakarte emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpenak; hori dela-eta, indarkeria hori osotasunean lantzeko politikak erraztu behar izan dituzte erakundeek, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei kalitatezko atentzioa emateko, baita arazoari prebentzioaren arlotik aurre egiteko ere. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoan, hainbat erantzun eman zaio emakumeen kontrako indarkeriari; esaterako, **EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioak eta 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAN**, martxoaren 16koa, **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateragina onartzen duenak adierazten duten bezala (66. artikuluan). Biak 2023an argitaratuta, eta Berdintasunerako Legeak, batez ere, III. tituluaren VII. kapituluan egiten dio erreferentzia Emakumeen kontrako indarkeria matxistari.**

Bestalde, 15/2022 Legea, uztailaren 12koa, integrala, tratu berdintasunerako eta diskriminaziorik gabekoa ere kontuan izan beharko da.

Hasieran, protokoloa planteatu zen "genero indarkeria kasuetarako", Legearen definizioari jarraituz, zehazki, 2004ko Legea onartu zen **bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik tratu txarrak jasaten zituzten emakumeen babesa hobetzeko** eta gizartea kontzientziazteko helburuarekin (1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero indarkeriaren aurkako babes osorako neuriei buruzkoa).

Denborarekin ikusi da definizio horrek beste eraso mota batzuk kanpoan uzten dituela, eta horregatik protokolo honetan erabaki da "indarkeria sexista" kontzeptua erabiltzea.

Indarkeria sexista da emakumeek emakume izate hutsagatik edota iruditzeagatik jasaten dutena, eta helburu eta ondorio emakumeen gaineko kontrola eta nagusitasuna befikotzea duena.

Hala, protokolo honek erantzuna ematen dio Zumaiako Udalaren Berdintasun eta Gazteriaren eta Gizarte Zerbitzuen Arloek tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeen arreta hobetzeko duten kezkari, baita herritarrak gizarte gaitz honetaz jabearazteko premiari ere, laguntzaren zirkuituan parte hartzen duten erakundeen aldetik.

Hori guztia kontuan izanda, **IV. Berdintasunerako Planean (2023-2026)** ere zehaztu da ardatz bat: "indarkeria matxistarik gabeko bizitzak", eta horren baitan egongo litzateke esku artean dugun protokoloa.

Gainera, 2025eko urtarrilaren 30ean, onartu da **Berdintasunerako ordenantza** Udal barruan, IV. Tituluan, indarkeria matxistarik gabeko bizitzak delakoan, eta zehazki, 69. Artikuluan adierazten da Udalak erakundeen arteko protokoloa izango duela indarrean, eta berrikusi egingo duela, hobekuntzak planteatzeko.

Ezin zaigu ahaztu **Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Babesteko Lege Organikoak (LOPIVI)** aldaketa ugari ekarri dituela eta, horiekin batera, haur eta nerabeen babes handiagoa eta hobea. Ikuspegi integrala du, eta indarkeria mota guztien aurrean jarduten da fase guztietan (sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzioa, babesa eta biktimen erreparazioa), ikuspegi prebentibo eta pedagogiko argiarekin, guztiok konponbidearen parte bihurtuz.

Gainera, erkidego mailan, onartu berri dagoen Legea izan beharko genuke kontuan: **2/2024 Legea, otsailaren 15koa, Haurtzaroari eta Nerabezaroari buruzkoa.**

Bukatzeko, 2015eko abenduan protokoloaren ebaluazioa egin zen (abenduarien 11n eragile guztiekin egindako bileran), eta Lanbidek

erabaki zuen gurekin elkarlanean aritzea protokoloan, nahiz eta ez sinatu, zuzenean.

Bestalde, 2018an, proposatu zen beharrezkoa zela Osasun Mentalaren Zerbitzuak parte hartzea. Horregatik, 2019ko otsailaren balorazio bileran parte hartu du zerbitzuaren ordezkaria den Macarena Dominguezek.

2020an, beste kide bat gehitu da protokoloan: Zumaiako Emakumeon* Etxea. Zerbitzu horretara ere hainbat emakume gerturatu daitekeelako laguntza eske.

2021ean ez genuen baloraziorik egin.

2022ko ekainean, eginiko protokoloaren balorazioan, adostu zen IZENBURUA aldatuko zitzaiola, askoz egokiagoa delako honakoa jartzea: Indarkeria sexista kasuetan jarduteko protokoloa.

2025erako, txertatu dira Lege berriak eta Udal barruko balorazioa egin da, partekatu dena eragile guztiekin. Ikusi da baliagarria izan daitekeela protokoloaren hasieran jartzea proposamen terminologikoa.

2026an, erabaki da berriro sinatuko dela: 2026ko otsailaren 5ean.

PROTOKOLOAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

1. Zumaiako Udala: Berdintasun eta Gazteria Saila, Udaltzaingoa, Gizarte Zerbitzuak eta Zumaiako Emakumeon* Etxea
2. Osakidetza: Zumaiako Osasun Zentroa
3. Ertzaintza: Urola Kostako Ertzain-Etxea
4. Zumaiako Ikastetxeak: Zumaiena ikastetxea, Herri Eskolako ikastetxea, Oikiako eskola eta Soldadura zentroa

5. Lanbide, Euskal Enplegu zerbitzua
6. Zarauzko Osasun Mentalaren Zerbitzua (Osakidetza)

ADOSTU DUTE:

1. Indarkeria sexista jasan duten pertsonen interesak bermatzea eta haien eskubideak babestea.
2. Arreta berehala eta bizkor eskaintzea, bereziki babesgabetasun larri eta premiazkoen kasuetan.
3. Profesional egokien lana baliatzea indarkeria egoerak errepika ez daitezen.
4. Erakunde bakoitzean, **ordezkoa** izendatu arduraduna ez dagoen uneetarako (opor garaian, bajak...)
5. Protokoloan adierazitakoa hedatu horrelako auzietan inplikaturako profesionalen artean.
6. Protokolo hau erakunde sinatzaileen jarraibidea izatea.
7. Erakundeen arteko koordinazioari eustea, protokoloan zehazten den bezala.

8. Protokoloan zehaztutako koordinazio mekanismoen artean, hainbat gizarte eragileren parte-hartzea eta inplikazioa sustatzea: gurasoen elkarreana, ikastetxeena, herri eragileena...
9. Koordinazio, jarraipen eta prestakuntzarako egiturak sortzea, Zumaian erasoak pairatu dituzten emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko.
10. Zumaiako Udalaren berdintasun politikekin lerratzea indarkeria sexistaren aurkako esku-hartzeak, emakumeen aurkako indarkeria desagertze bidean jartzeko.

HELBURUAK

Hauexek dira protokoloarekin lotu nahi diren helburuak:

- ✓ **Eskariari egokituriko arreta ibilbideak diseinatzea.**
- ✓ **Lanbide arteko koordinazioa indartzea emakumeei eta haien seme-alabei ematen zaien arreta hobetzeko.**
- ✓ **Adostasuneko guneak sortzea, arreta eredu eraginkorragoak lortzeko.**
- ✓ **Profesionalentzako tresnak ezartzea, emakumeen bigarren mailako biktimizazioa ekiditeko.**

Protokolo honetan parte hartu dugun eragileon helburu nagusia da gure arteko **koordinazioa bermatzea**, indarkeria pairatu duten emakumeei arreta onena eskaintzeko. Horretarako, egokitzen jo dugu eragile bakoitzaren esku-hartzea zehaztea jakiteko, une oro, zer egin behar dugun indarkeria kasuetan. Hasieran, komenigarria ikusi dugu indarkeriaren definizioa azaltzea, eta, bigarren atalean, eragile bakoitzaren esku-hartzea zehaztu dugu. Bukaeran, atxiki dugun fitxak (B eranskina) jasoko ditu indarkeria jaso duenaren eta erasotzailearen datuak, eragileon lana errazteko (betiere, konfidentzialtasunari eutsiz). **Beraz, esandako fitxa hori lehen arreta egiten duen eragileak beteko du. Horrez gain, kasuan-kasuan, lehenengo arreta egiten duenak balioetsi dezake beste eragile bati bidali behar izatea.** Garrantzitsua da adieraztea informazio hori beste eragileei emateko moduan izango garela, baldin eta emakumeak idatzizko baimena ematen badigu. Emakumeak ez badigu baimenik ematen, esku-hartzea garatuko da hasieran emandako arreta zerbitzuan; informazioa inori eman gabe.

Protokoloaren baitan erabiliko ditugu honako fitxak (bukaeran atxikita):

A eranskina: onespén akta ereduá

B eranskina: bideratze fitxa

2015ean egindako balorazioan eragileek erabaki zuten bi fitxa horiei eutsi behar zitzaizela.

2018ko balorazioan ere gauza bera erabaki da. Nahiz eta denek ez erabili, erabaki da komenigarria dela behintzat biak eskura izatea.

2022ko balorazioan, erabaki da ondo dagoela fitxak eskura izatea, baina agian, deribaziokoari beste forma bat eman behar zaiola eraginkorragoa izateko. Ordutik, eta kontrakoa erabaki arte, fitxei eutsiko zaie.

AURKIBIDEA:

1. PROPOSAMEN TERMINOLOGIKOA

2. INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEKO LAGUNTZA IBILBIDEAK

3. PROTOKOLOAREN KOORDINAZIO TEKNIKORAKO MAHAIA

4. PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA

5. I. ERANSKINA: INDARKERIA SEXISTA KASUEN AURREAN ERANTZUN INSTITUZIONALA

6. II. ERANSKINA: TESTU EREDUAK

1. PROPOSAMEN TERMINOLOGIKOA

INDARKERIA MATXISTA:

Beren gorputza edo nortasuna direla medio, egitura biologikoari, inposatutako jokabide heterosexualari, egokitutako jotako estetika tradizionalari eta abarri aurka egiten dioten pertsonen indarkeria matxista jasango dute agian, kontrol-mekanismo hori erabiltzen baita gizartean sexu-genero- sexualitate eskemak aurrera egiten duela bermatzeko.

Marko-kontzeptu horren barruan egongo dira indarkeria mota guztiak, tradizionalak egokitutako genero-eskemak hausten dituzten gorputzen aurka indarkeria erabiltzen den espazio fisiko eta sinboliko guztietan:

intersex, transgenero, transexualak, homosexualak, lesbikoak; bai eta sexu-genero eskema tradizionala aurrera eramanez ez duten pertsonak ere, hain zuzen ere, gorpu menderakaitz horiek jasaten dituzten indarkeria zuzeneko adierazpen ezberdinak haurtzarotik agertzen direla eta bizitzan zehar forma ezberdinak hartzen dituztela ulertzen dutenak.

SEXU-INDARKERIA EDO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA:

Bestalde, emakume guztiak, alegia, sexu-genero eskema tradizionalan emakume sinbolizatutako gorputzak, indarkeria matxistaren xede dira, ez egiten dutenagatik, baizik eta direnagatik eta ordezkatzeko dutenagatik. Emakumeen kasuan, beren gorputzak ez du zertan normaltasuneko eskema tradizionala kolokan jarri indarkeria jasateko; izan ere, emakume izateak edo emakume-antza edukitzeak mugaketak dakarte beraiekin. Izen horren bidez, sexu-genero eskema tradizionalan emakume sinbolizatutako gorpuek espazio guztietan jasaten duten indarkeria-forma guztiak adierazi nahi ditugu.

GENERO-INDARKERIA:

Genero-indarkeria terminoa erabiliko da indarkeria sexista bikotekideak edo bikotekide ohiak egiten duenean, edozein formatan. Definizio horrek bat egiten du 2004ko abenduaren 29ko BOEn argitaratutako genero indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko Lege Organikoan jasotakoarekin: Indarkeria fisiko eta psikologikoko ekintza oro, sexuaskatasuneko erasoak, mehatxuak, bortxaketak edo askatasuna nahita mugatzea barne, gizonak emakumei (beren ezkontide izan direnei edo, elkarrekin bizi gabe, berekin afektibitate-harremanak izan dituztenei) egindakoak.

FAMILIA BARRUKO INDARKERIA SEXISTA EDO INDARKERIA MATXISTA:

Izendapen hori erabiliko dugu neskatoek, nerabeek eta adin guztietako emakumeek beren familiako kideen aldetik (aita, neba, aitona, osabak, etab.) jasaten dituzten kontrol-, eraso-, gaitzespen- eta baztertze-forma ezberdinak adierazteko.

2. INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEKO LAGUNTZA IBILBIDEAK

Indarkeria sexista jasan izan duten emakumeak instituzio sarean honako zerbitzu hauen bidez sar daitezke:

1. UDAL ZERBITZUAK

- A. GIZARTE ZERBITZUAK
- B. UDALTZAINGOA
- C. BERDINTASUN SAILA
- D. ZUMAIAKO EMAKUMEON* ETXEA

2. ERTZAIN-TZA: UROLA KOSTAKO ERTZAIN-ETXEA

3. OSAKIDETZA: ZUMAIAKO OSASUN ZENTROA

4. ZUMAIAKO IKASTETXEAK: HERRI ESKOLA, OIKIAKO ESKOLA, INSTITUTUA, ZUMAIENA ETA SOLDADURA ZENTROA.

(Nahiz eta ikastetxeek arreta zuzena ez eman, eragile garrantzitsuak dira indarkeria auziak atzemateko.)

5. LANBIDE, EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA

6. BESTE ZENBAIT: epaitegia, Gaztegunea, kale hezitzaileak, Ludoteka, herriko elkarteak...

Jarraian, zerbitzu bakoitzaren eginkizunak azalduko ditugu.

1. UDAL ZERBITZUAK

A. GIZARTE ZERBITZUAK

1.- NOIZ

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako harrera ordutegia goizeko **08:00etatik 14:30etara** da, astelehenetik ostiralera. **Aizkorri kalean, 4. Branka** eraikinean.

Aurrez aurreko arreta eskaintzeaz gain, arreta telefonikoa eta emailaz ere eskainiko da, Gizarte zerbitzuetako bulegoetan. Horrez gain, emakumeak aukeratutako tokian egiteko aukera egongo da, betiere, toki egokia bada eta herritarra eta profesionalen segurtasuna bermatzen dela baloratzen bada.

Urgentziazkoa bada, berehala eskainiko zaio arreta ahal bada erreferentziazko gizarte langilearekin edota ezin bada beste edozein gizarte langilearekin.

Urgentziazkoa ez bada, arreta 24-48 orduan bermatuko da.

Aipatu ordutegi eta zerbitzu egun horietaz gain, Gizarte Zerbitzuen larrialdi zerbitzuak artatuko ditu. (Telefonoa 943224411)

2.-INDARKERIA SEXISTA EGOERAK NOLA JASOKO DIRA

Indarkeria sexista egoeran edo susmoak gizarte zerbitzuetan zuzenean edota beste zerbitzu edo eragile batek bideratuta ezagutu eta atenditu daitezke.

1. Gizarte zerbitzuen arretan gizarte langileak antzeman edo jasoko ditu norberak, familiak edo lagunak jakinarazitako egoerak

2. Gizarte zerbitzuetan herriko hainbat eragile eta zerbitzuetan jaso diren indarkeria sexista egoera edo susmoen jakinarazpenak jasoko dira: osasun zerbitzu, ikastetxe, berdintasun teknikari, emakumeon* etxea, udaltzaingoa, ertzaintza, epaitegiak, lanbide, gazteleku teknikari....

Aipatu zerbitzu edo eragileak jasotako egoera komunikatuko dute (idatziz jasotzea eta komunikatzea lehenetsiko da) gizarte zerbitzuetara ondoren dagokion gizarte langileak arreta bideratu dezan. Komunikazioa egiteko idatziz ondorengo fitxak kontuan hartzea gomendatzen dira (A eta B eranskinean azaltzen diren fitxak).

3. Udal gizarte zerbitzuen arreta ordutegitik kanpo Gizarte Larrialdi zerbitzuetara jakinaraziko dute egoera. Gizarte larrialdi zerbitzuetan atenditu ondoren oinarritzko gizarte zerbitzuekin ondoren koordinatuko da egindako arreta eta jarraipena.

Ondorengo fitxa erabiliko da indarkeria egoerak jasotzeko (B eranskinean dagoena).

3.- ZER ESKAINTZEN DU

-Oinarritzko gizarte zerbitzuetan larrialdi arreta eskaintzen du. Bereharfako informazio orientazio eta laguntza osasun, babes-salaketa eta etxebizitza beharrei aurre egin ahal izateko.

-Ohiko arreta indarkeria sexistaren inguruan herritarrak dagokion informazio, balorazio eta orientazioa jasotzeko. Baliabideen informazioa

eta tramitazioa, akonpainamendua, beste eragile edo pertsonekin jarraipenak eta mediazioa, eta abar.

Erreferentziazko gizarte langilea izango du herritarrak bidelagun lehen harrera eta jarraipen prozesuan.

Gizarte Zerbitzuetako gizarte langileak lehen harrera eta jarraipenak egiteko jarraibideak ezarrita dituzte (Indarkeria matxista biktimak diren kasuak Zumaiako Udaleko Gizarte zerbitzuetan atenditzeko gida 2025-05-07):

Indarkeria sexista atenditzeko Gizarte Zerbitzu sisteman dauden baliabide eta zerbitzuen informazioa gida erabiliko dute.

Gizarte Zerbitzuetako gizarte langileak baloratuko du herritarrari laguntzeko beste zerbitzu edo eragileekin elkarlan beharra. Zehaztuko da kasu guztietan norekin, emakumearen adostasuna eta helburua zein den. Ondorengo helburuak izango ditu zerbitzuen arteko koordinazio eskaerak: 1. Zerbitzuaren inguruko informazioa eskatzea 2. Bideratzen den zerbitzuak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzea 3. Emakumeari laguntzeko bi zerbitzuen arteko elkarlana adostea

Kasu guztietan idatziz jasoko da gizarte zerbitzuak egin duten zerbitzu arteko koordinazio eskaera. (B eranskina "indarkeria sexista kasuetan bideratze fitxa" eredu)

Herritarrari berehalako osasun artatzea behar badu laguntza zuzena eskainiko dio (lagundu osasun zerbitzuetara) eta osasun zerbitzuen aktibatzea eskatuko du gizarte langileak. Sexu eraso bada 112 zerbitzura deitu eta osasun arreta aktibatu (anbulantzia, Donostiako ospitalera eraman, etabar). Beste indarkeria kasuetan lesioak daudenean edo susmoa dagoenean, familia mediku edo larrialdi osasun zerbitzura bideratuko da (Zumaiako osasun zentrorra edo Zarautzeko larrialdietarako osasun zentrorra)

Herritarrak salaketa egiteko eta ondorengo epaitegira joate bidean dagokion laguntza zuzena eskainiko dio. Prozeduraren oinarriko informazioa eskainiko dio eta Ertzaintza eta dagokion aholkularitza juridiko zerbitzuen informazioa eta laguntza jaso dezan bideratuko du.

Gizarte langileak bere ordutegi edo beste gorabehera batzuk tarteko, Gizarte Larrialdi zerbitzuetan eskatuko du laguntza zuzena ematea herritarrari.

Atenditutako emakumearen eta ingurukoen integritate fisiko eta psikikoa arrisku egoeran dagoela baloratzen bada, Udaltzaingoa edota Ertzaintzaren laguntza aktibatu eta eskatuko da.


4.- NORI ETA NOLA NOTIFIKATU

Udaleko gizarte langileak beharrezkotzat jotzen badu emakumearekin adostutako esku-hartzean beste eragileek informatuta egon behar dutela, kasuaren berri emango du telefonoz edo posta elektronikoz. Adostutako dokumentuaren bitartez egingo da bideratze hori.

Kasu larrietan, informazioa egun horretan bertan edo hurrengoan bideratuko da, eta zehaztuko da nork egingo duen larrialdiko arreta: Gizarte zerbitzuek edo larrialdietarako zerbitzuak.

Hurrengo fluxugraman azaltzen da jarraituko den ibilbidea.

GIZARTE ZERBITZUEN ARRETA ETA KOORDINAZIO PROZESUA



B. UDALTZAINGOA:

B.1.- NOIZ

Udaltzaingoaren ordutegia honakoa da:

- **Goizeko 07:00etatik gaueko 21:00etara.**

2.- NORK

Larrialdiko arreta gertaeratik gertuenak egingo du (Ertzaintza edo Udaltzaingoa).

Tratu txarrak jasan dituen emakumeren bat bertaratzen bada, bertan egingo diote harrera. Hori gertatzen den unean Udaltzaingoan emakume udaltzaina badago, hark egingo dio harrera. Era berean, indarkeria auzi baten berri ematen duen telefono dei bat jasotzen badute, gertatutako tokira bertaratuko dira, berehala.

3.- ZER ESKAINTZEN DU


- Lehen harrera eta babesa eskaini, aparteko gela seguru batean.
- Ertzaintzari deituko dio eta informazioa emango dio emakumeari. Salaketa jarri behar izanez gero, Ertzaintzan egingo da.
- Ertzaintzak eta Udaltzaingoak informazioa helaraziko diote elkarri, koordinazioari eusteko.
- Biktimari arreta ematen zaionean, kasu guztietan bermatu beharrekoak dira isilpekotasuna, intimitatea eta errespetua, eta oinarritzko alderdi horiek bermatzeko baldintzetan egongo da.

4.- NORI ETA NOLA NOTIFIKATU

Udaltzainburuak Zumaian gertatutako auzien berri emango die Gizarte Zerbitzuetako arduradunari eta Berdintasun eta Gazteria teknikariari (posta elektronikoz).

Epaileak babes agindua onartzen duenean, **Udaltzaingoari dagokio babes-aginduen jarraipena egitea, Ertzaintzarekin batera (urtean bitan helaraziko dio Ertzaintzak informazioa.**

Hurrengo fluxugraman adierazten da jarraituko den ibilbidea:



C. BERDINTASUN SAILA:

1.- NOIZ

Berdintasun sailak ordutegi hau du: **09:00-14:00**. Halere, Berdintasun eta Gazteria teknikaria bulegoan egongo da ordutegi horretatik kanpo. Beraz, telefonoz laguntza eskaini dezake. Berdintasun saila Zumaiako Udaletxean dago (Foruen enparantza).

2.- NORK

Emakumea Berdintasun sailera etortzen bada, teknikariak dauden baliabideak azalduko dizkio. Gizarte zerbitzuetara jo dezakeela azalduko dio, eta Emakumeon* Etxearen berri ere emango dio. Emakume horren beharren arabera, batera edo bestera bideratuko du.

Emakumeak erabakiko balu Gizarte Zerbitzuetara jotzea, hitzordua hartuko dio teknikariak gizarte langilearekin, zuzeneko arreta eskaintzeko. Ondoren, beharrezko jarraipena egingo dio teknikariak.

Emakumeon* Etxera joan nahiko balu, teknikariak deituko dio dinamizatzaileari esateko bertara joango dela eta beharrezkoa bada lagunduko dio horra.

3.- ZER ESKAINTZEN DU

- Berdintasun sailak Emakumeon* Etxea kudeatzen du Emakumeon* Etxea elkartea-EME8rekin batera, kogestioan. Udal barruan, Etxearen ardura du Berdintasun sailak. Astero, koordinazio bilerak egingo ditu Emakumeon* Etxeko dinamizatzaileekin, zerbitzua aurrera eramateko eta koordinazioa bermatzeko.

- Berdintasun sailak indarkeria prebenitzeko eta sentibilizatzeko ekintzak egingo ditu, eta ekintza horiek bat egin behar dute Gizarte Zerbitzuek eta Udaltzaingoak egiten duten esku-hartzearekin.
- Berdintasun sailak bilera bat egingo du, **urtean behin**, protokolo honetan parte hartzen duten eragile guztiekin. Bilera horretan, ordura arte egindako lana baloratuko da, eta protokoloa berriro aztertuko da, hobekuntzak txertatzeko.
- Berdintasun sailak Gizarte Zerbitzuetako arduradunari, aldizka, helaraziko dio sentibilizazio, prebentzio eta ahalduntzerako ekintzen informazioa, Gizarte Zerbitzuetakoek programa horiek eskaini ahal ditzaten.

D. ZUMAIAKO EMAKUMEON* ETXEA:

1.- NOIZ

Emakumeei arreta eskaintzeko ordutegia, orokorrean, honakoa izango da:

- Astelehen, astearte eta osteguna: 09:30-13:00 / 16:30-20:00
- Asteazkena: 9:30-20:00
- Ostirala: 9:30-13:00


Ekaina erditik iraila erdira, udako ordutegia: 9:30-14:00

Helbidea: San Telmo kalea 18 (sarrera Martxoaren 8a plazatik)

2.- NORK

Herriko emakumeekin daukan zuzeneko harremanaren ondorioz, Emakumeon* Etxeko dinamizatzailerengana gertura daiteke emakume bat indarkeria egoeran.

Emakumeon* Etxeak, horrelako kasuetan, hurrengo orrialdeko eskeman zehaztu den moduan jokatu du:



Gizarte Zerbitzuek, Udaleko Berdintasun eta Gazteria sailak, eta Emakumeon* Etxeak urtean 2 koordinazio bilera egingo dituzte: bata ekainean eta bestea abenduan edo urtarrilean, agendaren arabera. Bilera horien helburua izango da: indarkeria sexistari aurre egiteko esku

hartzearen integritasuna handitzea (prebentzio eta sentsibilizazio ekimenen bidez ahalduntzea sustatzea eta emakumeen arteko sareak bultzatu eta erreparazio eta bizitzari heltzeko prozesuak bultzatzea, indarkeria sexista arretan jaso diren egoerak aztertzea, bi zerbitzuek eskaini dituzten zerbitzu eta laguntzak partekatzea, zerbitzu desberdinen arteko komunikazioa bermatzea, zerbitzu bakoitzak egin ditzakeen hobekuntza edo berrikuntzak aztertzea...).egindako bideraketetan izandako zailtasunak, edo indarguneak identifikatu eta hobetzen joatea.

3.- ZER ESKAINTZEN DU

Emakumeon* Etxea bereziki erabilgarria izan daiteke emozionalki une gogorrean edota bakarrik sentitzen diren emakumeentzat. Emakumeon* Etxeak espazio seguru eta atsegina izan nahi du, non emakumeei aukera eman nahi zaien ikasteko, hausnartzeko eta esperientziak partekatzeko.

Bertan eskaintzen da:

- **Arreta psikologikoa:** Emakumeenganako diskriminazio eta indarkeria egoerak bizi dituztenei zuzendutako arreta psikologikoa eskaintzen da. Emakumeei laguntza emozionala ematen zaie, askotariko prozesuetan bidelagun bat edukitzeko. Honako gaiak lantzen dira: indarkeria matxista (genero indarkeria, sexu erasoak, sexu jazarpena...), banantze prozesuak... Beharrezkoa den kasuetan, emakumearen ingurukoekin ere egingo da lanaketa.
 - **Autozaintza taldea.** Taldea sortzeko partaide minimoa lortzen bada, egoera konplexuak bizitzen ari diren zein indarkeria matxista jasan duten emakumeentzat taldekako saioak egiten ditugu, gaian aditua den profesional batek gidatuta.

Norberaren bizipenak eta esperientziak partekatuz, osatze prozesuak elkarrekin egiteko espazioa da honakoa.

- **Aholkularitza juridikoa:** Emakumeei bideratutako gai konplexuei buruzko orientazio eta informazio juridikoa eskaintzen da:
 - Emakumeenganako diskriminazio eta indarkeria egoeren gaineko informazioa
 - Emakumeen kontrako erasoei buruzko prozesu penalak
 - Banaketa, dibortzioa, dibortzio prozesuetatik sortutako gatazkak, mantenu pentsioen ordainketak ezak, bisita erregimenen ez betetzeak...

4.- NORI ETA NOLA NOTIFIKATU

Babesbaketasun larri eta premiazko kasuetan, emakumearen osotasun fisikoaren aurkako arrisku larria badago dinamizatzaileek 112ra deituko du eta ondoren gizarte zerbitzuekin harremanetan jarriko da. Gizarte zerbitzuen ordutegitik kanpo, SFUSera deituko da. Dinamizatzailea arduratuko da indarkeria jasan duen emakumeari akonpainamendua egiteaz gizarte langile bat edo SFUSeko langile bat azaldu arte, eta orduan berak egingo dio akonpainamendua. Emakumearen osotasun fisikoaren aurkako arriskua ez badago, dinamizatzailea gizarte zerbitzuekin harremanetan jarriko da. Gizarte zerbitzuetako ordutegitik kanpo, SFUSekin harremanetan jarriko gara.

Emakumeon* Etxera laguntza eske etortzen diren emakumeei (egoera larria edo premiazkoa ez bada) Emakumeon* Etxean zein Gizarte Zerbitzuetan eskaintzen diren zerbitzuen berri emango zaio. Emakumeak gizarte zerbitzuetan hitzordua hartu nahi badu, dinamizatzailea gizarte langileekin harremanetan jarriko da hitzordua hartzeko. Emakumeak nahi

izanez gero, gure zerbitzuak jaso ahal izango ditu: psikologikoa eta juridikoa.

Emakumeon* Etxeko zerbitzu espezializatuek emakume bat Gizarte Zerbitzuetara deribatzeke beharra ikusten badute deribazio fitxa bat beteiko dute. Kasua deribatu ahal izateko emakumearen firma beharko da. Dinamizatzaileak arduratuko dira deribazio fitxa Gizarte Zerbitzuetara bidaltzeaz.

2. ERTZAINZA

1.- NOIZ

Ertzaintzak, bere zerbitzuen artean, arreta berezia eskaintzen die sexu indarkeriaren eta tratu txarren auziei.

Zehazki, zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Larrialdietan esku-hartzea.
- Salaketak jasotzea.
- Babes agindua eskatzeko izapideak egitea.
- Erasoak pairatu duen emakumeari banakako arreta ematea (polizia arretaz gain). Emakume horren jarraipena egitea, eta bere eskura dituen baliabideen informazioa ematea, emakumearen eta haren familiaren segurtasuna bermatzeko.
- Larrialdietarako telefono mugikorra eskaintzea (112rekin edo Ertzain-Etxearekin).
- Hartutako babes neurrien berri emango dio Zumaiako Udaltzaingoari posta elektronikoz.

2.- NORK

Urola Kostako-Ertzain Etxean genero indarkeriaren auziak artatzeko bi arduradun daude, emakumearen arreta zuzenaz arduratzeke eta auziaren jarraipena egiteko.

3.- ZER ESKAINTZEN DU

Erasoa gertatutako tokian izan beharreko jokabidea:

- Erasotua izan den emakumeak eskatuta, beste pertsonaren baten deia dela medio edo Udaltzaingoak deituta, ertzainak emakumea dagoen tokira bertaratuko dira, eta beharrezkoa den denbora egongo dira.
- Emakumeak kalteak baditu (nahiz eta txikiak izan, edo nahiz eta ikusgarriak ez izan, zantzuak badaude), emakumeari osasun zentrora lagunduko zaio. Emakumeari esango zaio **kalteen parte**a eskatu behar duela, salaketa egiteko garaian aurkezteko.
- Gertatutakoaren arabera, emakumeari lagunduko zaio osasun zentrora, epaitegira, etxera edo harrerako foru baliabideetara.
- Emakumeari lagundu behar bazaio osasun zentrora, kontsulta medikoa bukatu arte itxaron behar du poliziak, emakumeak bide-laguntza gehiago behar duen ala ez baloratzeko.
- Emakumeari emandako arreta bukatu ondoren, Ertzaintzak atestatua egingo du, eta dagokion jarraipena egingo dio.

Salaketa:

- Salaketa jasotzeko garaian, kontuan izango da emakumearen egoera emozionala. Horregatik, segurtasun giroan jaso behar da salaketa (toki eroso eta babestuan).
- Salaketa jasotzen den une horretan, gomendagarria da emakumearen seme-alabak han ez izatea.
- Salaketa jartzearen ondorioak adieraziko zaizkio emakumeari.
- Era berean, emakumeari azalduko zaio babes agindua eskatzeko aukera duela, eta abokatuaren doako aholkularitza balia dezakeela salaketa jartzeko eta babes agindua eskatzeko. Emakumeak onartzen badu abokatuaren aholkularitza, Ertzaintzak ahalbidetuko dio abokatu emakumeari.
- Azkenik, emakumeari prestakuntza emango zaio genero indarkeria auzien aurrean babesteko neurriei buruz.
- Emakumeari laguntzea: emakumeak, beldurrak eraginda, hala eskatzen badu, Ertzaintzaren laguntza izango du berak eskatutako etxera joateko (famihiaren edo lagunen etxera...) bere seme-alabekin. Gainera, Ertzaintzak, beharrezkotzat jotzen badu, Aldundiko larrialdietarako zerbitzura deituko du emakumea artatua eta baloratua izan dadin.
- Emakumeari eskainitako bide-laguntza bereizgarririk gabeko kotxean egingo da.

- Adingabeei arreta ematea: emakumeak seme-alabak baditu eta ezin baditu zaindu, hark aukeratutako senitartekoekin geldituko dira. Hori ezinezkoa bada, GFAko adingabeen zerbitzuarekin harremanetan jarriko dira, seme-alaba horiez ardura daitezen.

- Sexu indarkeriazko auzietan:

. Orain dela gutxi gertatu bada, gertaera neutralizatu egingo da, eta emakumeari lagunduko zaio. Jarraian, emakumea osasun zentrora eramango da, eta laguntza emango zaio, bertan dagoen une oro.

. Emakumeari azalduko zaio ez dela komeni garbitzea eta arroparik aldatzea. Era berean, ahoan kalteak jasan baditu, emakumeak ezingo du ezer jan eta edan, balizko frogak ezabatu ez daitezen etorkizunerako judizial prozesurako.

. Ertzaintzak auzitegiko medikuaren presentzia eskatuko du, azterketa medikua egiteko. Aldi berean, poliziak auzitegiko medikuari emango dizkio xehetasun guztiak.

. Emakumeari baliabideen informazioa helaraziko zaio, egoera emozionala eta informazioa ulertzeko duen gaitasunaren arabera.

4.- NORI ETA NOLA NOTIFIKATU

- **Udaltzaingoarekin koordinatzea:**

. Hilero-hilero, Urolak Kostako Ertzain-etxeak Zumaiako Udaltzaingoarekin genero indarkeria eta tratu txarren auziak aztertuko ditu. Horrez gain, eta lehen esan dugun bezala, babes neurriak hartu behar izaten direnean ere helaraziko dio informazioa (behin-behinekoak zein iraunkorrak). Horrela, egiaztatuko dute auzi guztien informazioa dutela bi erakundeek.

. Udaltzaingoa ohartzen bada erasoren bat jasandako emakumeren baten datuak falta zaizkiola, Ertzaintzari eskatuko dizkio, posta elektronikoz, behar dituen datuak (babes aginduak...).

- **Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean aritzea:**

. Eskura dituen baliabideei buruzko informazioa emango zaio emakumeari, baina kasua Gizarte zerbitzuetara bideratzea izango da helburu nagusia.


. Emakumeari gomendatuko zaio Gizarte zerbitzuetakoekin harremanetan jartzea (telefonoz edo bertaratuta).

- **Informatutako onarpen aktak:** emakumeari eskatuko zaio idatzizko onarpena ematea Ertzaintzak bere datuak Gizarte zerbitzuekin partekatzeko aukera izateko. Era berean, Gizarte Zerbitzuetakoei eskatuko zaie, idatziz, beharrezkoa den informazioa emakumeari eskainitako arreta hobetzeko.

- **Prozesuaren amaiera eta jarraipena:** gutxienez, bi hilean behin, emakumeari elkarrizketa eta ausazko deiak egingo zaizkio jakiteko ea zein den bere egoera. Horrez gain, erasotzailearen jarraipena egingo da. Beharrezkoa balitz, Ertzaintzak Udaltzaingoarekin eta Gizarte Zerbitzuekin batera egingo luke jarraipena. Gutxienez, hiru hilabeteko jarraipena egingo du arrisku mailaren arabera. Epaitegian, erasotzailearen absoluzioa edo diligentzien artxibatzea gertatu arren, Ertzaintzan, espedientearen arduradunak uste badu genero indarkeria kasua existitzen dela, lanean jarraitu beharko du, espedientea exekuzioan mantenduz. Beharrezko jarraipen neurriak beteko dira, emakumearen segurtasuna bermatzeko.

Oharra: urtero, azaroan, Ertzaintzak Zumaiako Udalarari helaraziko dio urtean zehar izandako indarkeria matxista kasuen taula, behar den bezala beteta, balorazio bileran adostu den bezala. Udalak datu horiek erabiliko ditu herritarrak sentsibilizatzeko.

ERTZAINTZAREN ARRETA ETA KOORDINAZIO PROZESUA



3. OSASUN ZENTROA

Osasun Zentroko langileek bertaratutako emakumeen bizipenen **intimitatea eta konfidentzialtasuna** bermatuko dituzte.

Nola jokatu genero indarkeriazko auziaren aurrean:

1.- NOIZ

Oinarrizko arreta:

Zumaiako osasun zentroko oinarrizko arreta zerbitzuak honako ordutegia du: **08:00-17:00**.

Ordutegitik kanpo izandako **larrialdiak 112ra** edo Zarauzko larrialdietarako zerbitzura bideratuko dira.

2.- NORK

Erasoa pairatutako emakumeak esku-hartze berezia behar duten lesioak baditu, medikuak emaginarengana bideratuko du emakumea, emaginak ginekologoarengana, eta, azkenik, ginekologoak ikusten badu emakumeen lesioak nahiko larriak direla, Donostiako Ospitalera (ginekologia larrialdiak) bideratuko du anbulantzian.

3.- ZER ESKAINTZEN DU

. Tratu txarren ondorioz, emakumeak lesioak baditu, **lesioen parte**a egingo da.

. Osasun zentroko sendagileek genero indarkeriaren zantzuak igartzen badizkiote emakumeari, saiaturako dira gertaera argitzen, baina beti

emango diote lehentasuna pazientearekiko harremanari. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da osasun langileek ezagutzea hainbat adierazle emakumeak pairatzen duen genero indarkeria hautemateko eta kontsultan erne egoteko.

. Emakumeak gertaera ez salatzea eta babes agindurik ez jartzea erabakitzen badu, azalduko zaio salatzea ez dela eskubide bat bakarrik, baizik eta indarkeria egoera eteteko eta babesteko aukeretako bat dela. Horrez gain, adieraziko diote profesionalak diren aldetik, behartuta daudela horrelako gertaerak epaitegian jakinaraztera.

. Emakumeak onartzen badu tratu txarrak jasan dituela, azterketa medikua egingo zaio lesioak hautemateko eta bere egoera emozionala baloratzeko. Beti esan behar zaio emakumeari zertarako egiten zaizkion probak. Horrez gainera, eskura dituen baliabideei buruzko idatzizko informazioa emango zaio.

. Emakumeak ez badu onartzen genero indarkeria pairatu duela, bere osasun espedienteetan jasoko dira azterketa medikuaren xehetasun guztiak eta eman zaion arreta. Arreta jarriko zaie emakumeengan aurkitutako arazo fisikoei eta psikikoei, eta sendagilea saiatuko da beste hitzorduren bat jartzen emakumearekin, euren arteko harremana sendotzeko.

. Pediatria zerbitzukoek adingabeenganako indarkeria hautematen badute, **ofizioz** jarriko da **salaketa**.

Larrialdietarako zerbitzuak:

. Arrisku kasuetan, Ertzaintzari deituko zaio laguntza eske (112).

. Emakumeak larrialdiko etxea behar badu, Gizarte zerbitzuengana bideratuko da. Gizarte zerbitzuetako ordutegitik kanpo, Udaltzainekin

jarriko dira harremanetan emakumeak behar duen arreta emateko eta larrialdietarako foru baliabideak eskaintzeko.

. Emakumeari lehenengo arreta Larrialdietarako Zerbitzuetan egiten bazaio, txosten medikua emango zaio emakumeari, aurrerantzean, jarraipena egingo dion medikuari emateko. Era berean, telefonoz, bere ohiko medikuari helaraziko zaio emakumeari buruzko informazioa, genero indarkeria pairatu duelako susmorik bada.

. Laguntza baliabideei buruzko informazioa emango zaio emakumeari.

. Emakumeak tratu txar psikologikoa pairatu badu, aurrena, osasun zentroko medikua Zumaiako Gizarte zerbitzuekin jarriko da harremanetan, laguntza psikologikoa eskaintzeko. Prozedura horretan, egokitzen jotzen bada Osasun Mentalaren Zerbitzuarekin harremanetan jartzea, dagokion deribazioa egingo, koordinazioari eutsiko eta jarraipena egingo zaio (OMZ G.Lren proposamena).

Sexu erasoak:

. Sexu eraso gertatu berria bada (5 egun arte, 120 ordu):

Emakumea Donostiako ospitalera bideratuko da, ahalik eta lasterren, ginekologia azterketa egin diezaioten.

. Sexu eraso ez bada gertatu berria (5 egun baino gehiago):

Emakumearen kalte fisikoak eta psikikoak artatuko dira, barne protokoloari jarraituz. Ondoren, lesioen parte egingo da.

4.- NORI ETA NOLA NOTIFIKATU

. Lehen esan dugun bezala, tratu txarren ondorioz, emakumeak lesioak baditu, **lesioen parte**a egingo da, eta osasun zentroko zuzendaritzak Azpeitiko epaitegira bidaliko du.

. Osasun zentroko sendagileek Gizarte Zerbitzuetakoekiko koordinazioari eutsiko diote, emakumearen baimenarekin, noski.

. Emakumea arriskuan badago, Udaltzaingoari edo Ertzaintzari deituko zaio.

4. ZUMAIAKO IKASTETXEAK

Zumaiako ikastetxeek barne protokolo bat dute horrelako auzietan nola jokatu behar den argitzeko. Zehazki, jarraitzen diote honi: **“Indarkeria matxistaren biktimaren diren haur, nerabe eta emakumeei arreta emateko ikastetxeentzako jarraibideak”**, 2022an egina. Beraz, ikastetxeek Hezkuntzak eratutako barne protokoloari jarraituko diote, baina, une oro, **Udal zerbitzuekin koordinazioari** eutsi behar diote (informazioa elkartrukatu Gizarte Zerbitzuekin...).

Ikastetxeen jarduera honela laburbildu dezakegu:

Ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrei aurre egiteko *jarduera-protokoloa* oinarrizkoa eta aginduzkoa da, ikastetxe bakoitzak hori egokitu edo zabaldu egin badezake ere egoera bakoitzeko testuinguruaren edo berezitasunen arabera.

Ikastetxeak berdinen arteko tratu txarren esparruko jokabideren bat ikusten duen guztietan hasiko da protokoloa, bai eta ikasleren batek bere

edo kideren baten kontrako balizko tratu txarren egoera bat dagoela adierazten duenean, edo ikasle baten familiak edo legezko tutoreek adierazten dutenean ere.

Era berean, honako egoera hauetan hasiko da protokoloa:

- Polizia- edo epai-salaketa jarri dela edo Arartekoari kexua aurkeztu zaiola jakinez gero.

- Hezkuntzako Ikuskaritzak hala eskatzen badu.

Kanpoko salaketarik ez badago ikastetxeak ez du protokoloa hasi beharrik izango, datuetan eta frogetan oinarrituta uste badu jokabideak ez direla larriak, eta horiek konpondu ahal izango dituela 201/2008 Dekretuaren II. Kapituluan jasotzen diren jokabide desegokiak konpontzeko neurrien bidez. Ikastetxeak mota horretako neurrien bat hartzen badu jokabide desegokiren bat dagoelako, I. Eranskinean idatzita geratuko da hori. Beraz, zein dira protokoloa hasteko beharrik ezartzen ez duten jokabideak?

Tratu txarrekin lotutako larritasun txikiko jokabideak, denbora laburrez agertu ohi direnak, irakasleen esku-hartzea eragiten dutenak, eta agertu ziren bezain bizkor desagertzen direnak. Ez dute ondorio iraunkorrik eragiten, mota larrieneko tratu txarretatik urrun daudelako.

Alabaina, jokabideek ondorio garrantzitsuak badituzte ikasleentzat, edo ezin badugu ziur jakin zer irismen izango duten, ikastetxeak aipatutako protokolo hori hasi beharko du nahitaez.

Hasiera batean protokoloa ez hastea erabakitzen bada ere, gerora erabaki hori aldatu ahal izango da egoerak okerrera egin duela adierazten badute datuek.

Jarduera-protokoloaren xedea da ikastetxeetako irakasleek eta gainerako hezkuntza-komunitateak jakitea nola jardun behar duten ikastetxeetako balizko tratu txarren aurrean.

Protokolo honek zuzentzen du esku-hartzea, sarreran azaltzen diren honako printzipio gidari hauen arabera gauzatuko dena: tratu txarren gaineko sentsibilizazioa, prebentzioa, konfidentzialtasuna eta zerikusia duten ikasleen babesa, esku-hartze koordinatua, zuzendariaren

gidaritzapekoa, sistematizazioa, eraginkortasuna eta premia, bai zerikusia duten ikasleekiko, bai eta horien familiekiko ere.

Jarduera-protokoloaren bidez bizikidetza positiboa sustatu nahi da. Horrela, tratu txarrei –bizikidetzaren haustura direla kontuan hartuta– emango zaien erantzuna bat etorriko da beti 201/2008 Dekretuak ezarritako hezkuntza-xedearekin, eta ikaskuntza ekarriko du eskola-komunitate osoarentzat, etorkizunean berdinen arteko tratu txarrak sortzea eragoziko duten balioen arabera bizitzen ikasten lagunduko diguna.

Esku-hartzearen faseen eskema:

Salbuespen gisa, ikaslearen jokabidea ikastetxeko bizikidetzarentzat larriki kaltegarria izan daitekeenean, eta jokabide hori ikaslearentzat edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideentzat arriskuak bada, zuzendariak ohiko prozedura erabili eta dekretu honetan jokabide horiek zuzentzeko ezarri diren neurriak aplikatu ahal izango ditu; betiere, aurrez jakinarazpena igorri beharko dio Hezkuntzako Ikuskaritzari (201/2008 Dekretuko 29.3 artikulua).

1.- Tratu txarrak izan daitezkeen jokabideak behatzea eta jakinaraztea zuzendaritzari eta bere taldeari

2.- Protokoloa hasiko den ala ez erabakitzea

3.-Informazioa biltzea eta aztertzea. Larrialdi-neurriak biltzea eta aztertzea. Familiei jakinaraztea

4.- Hezkuntzako ikuskaritzari igortzea 3. urratsean egindako txostena

5.- EZ badago tratu txarren ebidentziarik: hezkuntza-tratamendua, egoeraren arabera.

6.- BADAUDE tratu txarren ebidentziak: prozedura espezifikoa eta txostena lantzea.

7.- Hezkuntzako ikuskaritzari igortzea

9.- Beste instantzia batzuei jakinaraztea, hala komeni bada. Kasua amaitzea.

5. LANBIDE, EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA

Lanbidek genero indarkeria kasuetarako honako protokoloa du:

Orokorrean, orientazio prozesua bideratzen dute emakume horrekin, beste edozein herritarrari egiten zaion bezala.

Lanbidek, Enplegurako Orientazio Zerbitzuaren bidez, orientazioko profesionalen aholkularitza jartzen du edonoren eskura, eta lan munduan sartzeko norbanako plan bat egiteko, adostasun batera iritsita.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa (2004ko abenduaren 29ko EAO, 313. zk.).

Biktimen eskubideak:

- Ahalik eta lasterren, emakumearen beharretara egokitutako informazioa, aholkularitza eta arretarako eskubidea.
- Bere identifikazio edo bizilekutik eratorritako datu pertsonalen konfidentzialtasun eta intimitateari eusteko eskubidea, baita bere zaintzapean dauden seme-alabenak ere.
- Behin eta berriro gertatutakoa kontatzera behartuta ez egoteko eskubidea. Biktimari lehenengo arreta egiten dion erakunde, zerbitzu edo profesionalak arreta osorako bideak

abian jartzeko eskubidea, beste profesionali komunikatuz, ahalik eta lasterren.

- Genero indarkeriaren biktimen aldeko baliabideak, zerbitzuak eta laguntza publikoak eskura izateko eskubidea.

Argibide orokorrak:

Zer egingo du Lanbideko profesionalak indarkeria pairatu duen emakumea atzematen badu?

1. Entzun
2. Gizarte Zerbitzuek lagundu dioten-edo aztertu
3. Ez badiote lagundu, deribazioa egiteko behar dena galdetu
4. Arrisku fisiko edo morala badago, Ertzaintzan salatu

Bere egoera onartuta ez duten genero indarkeria pairatu duten emakumeei, arreta iraunkorrerako telefonoari buruzko informazioa emango zaie, 24 ordukoa, doakoa eta konfidentziala, eta gainera, deiak ez du arrastorik utziko telefonoaren fakturan: 900 840111.

Harremanetan jarriko dira zerbitzu horrekin honako kasuetan:

- Blokeatuta edo ikaratuta badaude eta lasaitu behar badute.
- Oker badaude eta erabaki berriak hartu nahi badituzte.
- Baliabideei eta eskubideei buruzko informazioa behar badute.

Prozesuaren urratsak egiten ari badira eta aholkularitza behar badute, biktimari laguntzeko zerbitzura (BLZ) jo dezaketeela informatuko zaie, Barakaldoko, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Justizia jauregietan kokatuta.

Hitzordua aldez aurretik hartu beharko dute (doako tel.):

Araba 900 180414

Bizkaia 900 400028

Gipuzkoa 900 100928

Zertarako?

- Laguntza psikologikoa jasotzeko
- Eskubideei, lege prozedurei eta baliabide sozialei buruzko informatzeko
- Lagunduta egoteko eta prozedura judiziala zertan datzan aholkatzeko
- Eskatutako baldintzak betetzen baditu, doako justizia izapidetzeko

Genero indarkeriaren biktimaren akreditazioa duten emakumeak: izen ematea

Lehenengo unetik, emakumea genero indarkeriaren biktima bada, akreditazioa jasoko zaio, eta momentuz, bulegoan gordeko dugu horren kopia, bere tutoreak, espresuki, kudeatutako artxibo batean. Emakumeari esango zaio eskatu dezakeela datuak gordetzeko konfidentzialtasun adierazlearen bitartez, behar denean, aktibatu eta desaktibatu egin daitekeena.

Kasu horietan, komunikazio sistema aldatu egingo da eskaintzetik SMS eta tutorearekin harremanetara. Bulegoan, esango zaio genero indarkeriaren biktimari arreta egiteko tutorerik badagoela, eta hitzordua har dezakeela. Kasuaren arabera, hitzordua emango zaio.

Gerta litezkeen egoerak, betiere, emakumeak eskatzen eta transmititzen duenaren arabera:

- Lana egin dezakeen emakumea: Gizarteratzeko errenta aktiboa (GEA), diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) eta genero indarkeriaren biktimaren tutoreari buruzko informazioa. Nahi badu, hitzordua emango zaio.

- Gaur egun, lanik ezin duena egin emakumea: ezer baino lehen, ordainketa bakarreko laguntza.

Bulegoaren edozein eremutan, genero indarkeriaren biktimaren akreditazioa duen emakumearekin ari bagara: bulegoaren eremu guztiek informatu beharko dute genero indarkeriaren biktimaarentzako tutorea izateko aukera duela, eta izena eman beharko zaio momentuan bertan, nahi izanez gero, hitzordua eskatzeko edo emateko.

DBEri buruz (diru-sarrerak bermatzeko errenta):

- Genero indarkeriaren biktimei urtebeteko errolda eta benetako bizilekua eskatuko zaizkie (nahiz eta normalean, 3 urte eskatu).
- 18 urtetik aurrera eskatu dezakete (nahiz eta normalean, 23 urte baino gehiagorekin izan).

Bereizitako bizikidetza unitatetzat joko dira, nahiz eta beste senideekin bizi: 12 hilabete gehienez eutsiko zaio bereizitako bizikidetza unitatea izateko baldintzari, bereizita harrera bizikidetza unitatetik. Ohiz kanpokoa izan daiteke beste 12 hilabete luzatzea.

Konputagarri ez diren diru-sarrerak DBE kopurua zehazteko:

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako prestazio ekonomikoak. DBE genero indarkeriaren auzietan, bikotekideak, bikotekide ohiak, ezkontideak edo ezkontide ohiak eraginda.

Lan eskaintzak eta kontratazioa:

Komunikazio sistema aldatu egiten da: genero indarkeriaren biktime den emakumeak SMS bat jasoko du esateko aukeratua izan dela eskaintza batean eta harremanetan jartzeko tutorearekin.

Konfidentzialtasun adierazlea duten kontratuak aurrez aurre komunikatu beharko dira, ezin izango dira on-line sartu.

Genero indarkeriaren biktimei edo etxeko indarkeriaren biktimei eskainitako aldi baterako edo betirako kontratuek bonifikazioa izango dute.

Orientazioan:

Emakumeari norbanako arreta eskainiko zaio (betiere, ez badu eskatzen laguntzaile baten presentzia), toki lasai batean eta besteen joan-etorritik aldenduta, konfidentzialtasunari eutsiz.

TELEFONOAK ETA HELBIDE ELEKTRONIKOAK:

Gizarte Zerbitzuak	943862200	gizartelangilea@zumaia.eus
Udaltzaingoa	943143232	udaltzainburu@zumaia.eus
Berdintasun Saila	943865025	berdintasuna@zumaia.eus

Emakumeon* Etxea	633432762	info@zumaiakoemakumeonetxea.eus
SOS Deiak	112	
Herri Eskola	943899628	012972aa@hezkuntza.net
Oikiako Eskola	943899223	012299aa@hezkuntza.net
Institutua	943899253	zumaiabhi@gmail.com
Zumaiena	943860462	ikastetxea@zumaiena.eus
Soldadura Zentroa	943862576	soldadurazentroa@urolakosta.org
Ertzaintza	943538913	adm_uolak@ertzaintza.eus ipotciu_uolak@ertzaintza.eus vdvg_uolakosta@ertzaintza.eus
Osasun zentroa	943006490	Correo.enfermeriazumaia@osakidetza.eus inmaculada.lizasoubera@osakidetza.eus
Lanbide	943596315	cristina.leiva@lanbide.eus
Osasun Mentalaren Zerbitzua	943007980	MIRARI.OTEGIGOIKOETXEA@osakidetza.eus Salud.MentalZarautz@osakidetza.eus

3. PROTOKOLOAREN KOORDINAZIO TEKNIKORAKO MAHAIA

Parte-hartzaileak:

1. Berdintasun zinegotzia
2. Berdintasun eta Gazteria teknikaria
3. Gizarte Zerbitzuetako arduraduna
4. Zumaiako Emakumeon* Etxeko dinamizatzailea
5. Urola Kostako Ertzain-Etxeko arduraduna
(genero indarkeria eta tratu txarren arretarako arduraduna)
6. Udaltzainburua
7. Osasun zentroko ordezkaria
8. Herri eskolako ordezkaria
9. Oikia eskolako ordezkaria
10. Institutuko ordezkaria
11. Zumaiena ikastetxeko ordezkaria
12. Soldadura zentroko ordezkaria
13. Lanbideko, Euskal Enplegu Zerbitzuko, ordezkaria
14. Osasun Mentalaren Zerbitzuko ordezkaria

Gainontzeko profesionalak: mahaikideek eskatuta, parte hartuko dute mahaian arreta psikologikoa, juridikoa... eskaintzen duten profesionalak.

Koordinazio mahaiaren eginkizunak:

1. Protokoloa eta eragileen arteko koordinazioa baloratzea.
2. Hautemandako beharretatik abiatuta, zerbitzu berrien proposamenak egitea.
3. Artatutako emakumeen ezaugarriak jakitea, azterketa estatistikoak egin udal politikak hobetzeko.

Bileren maiztasuna:

. Koordinazio mahaiak **urtean behin** egingo du bilera, eta ez-ohiko bilera egingo du auzi larriren bat gertatzen bada.

. Berdintasun eta Gazteria teknikariak egingo du bileren deialdia eta akta.

4. PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA

Urtean behin, bilera bat egingo da protokolo honen eragile guztiekin, eta aztertuko da ea adostutakoa betetzen ari den ala ez. Horrez gain, ikusi beharko da ea beharrezkoa den hobekuntzaren bat sartzea.

Esandako bilera egin baino lehen, Udal zerbitzuek (Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa eta Berdintasun zerbitzua) aurre balorazio bat egingo dute, non eramango duten besteekin partekatzeraz.

Ebaluazio datak:

1. Ebaluazioa: 2014ko abenduaren 18an.
2. Ebaluazioa: 2015eko abenduaren 11n.
3. Ebaluazioa: 2017ko urtarrilaren 26an. Akta gordeta.
4. Ebaluazioa: 2018ko martxoaren 5ean. Akta gordeta.
5. Ebaluazioa: 2019ko otsailaren 20an. Akta gordeta.
6. Ebaluazioa: 2020ko abenduaren 14an. Akta gordeta.
7. Ebaluazioa: 2022ko ekainaren 28an. Akta gordeta.
8. Ebaluazioa: 2023ko abenduaren 18an. Akta gordeta.
9. Ebaluazioa: 2025eko ekainaren 11n. Ertzaintzak eskatu du gauza batzuk aldatzeko, eta txertatu dira protokoloan. 2026ko bertsioa osatu da hori guztiarekin, eragile guztiok sinatzeko.

5.I.ERANSKINA: INDARKERIA SEXISTA KASUEN AURREAN ERANTZUN INSTITUZIONALA

1.Sarrera

Indarkeria sexistaren arazoa, hots emakumeen kontrola helburu duen harreman eta jarrerak, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun estruktural eta sinbolikoaren ondorio da. Aipatutako guztia dela eta, ezin da azaldu pertsonen arteko indarkeria bezala edota modu isolatuan eta bakartuan ematen diren eraso bezala soilik, gizarte oso baten isla bezala baizik; indarkeria sexista egiturazkoa da, bizi garen jendartearen antolaketa sexistak ahalbidetzen eta sustatzen duen indarkeria da.

Erantzun egoki bat emateko ezinbestekoa da esku hartze eta jarduera publikoa era zabal batean eman ahal izatea. Ahalduntzea, emakumeek indarkeria egoeratik irteteko aukera eta gaitasunen areagotze bide bezala hartu behar da, eta instituzioen aldetik babes jarraitu bat eman behar zaio erasotuari indarkeria egoeratik irteteko ibilbide ezberdinetan lagunduz, erasotuen aukerei, baliabideei eta bizi duten testuinguruari egokituz.

Gaur egun, Zumaiako Udalak badu indarkeria sexistari aurre egiteko tresna bat: indarkeria sexista kasuetan jarduteko protokoloa. Protokolo honen helburua, eragile ezberdinen arteko koordinazioa bermatzea da, indarkeria kasu baten aurrean modu eraginkorrean erantzun eta erasotuari arreta egokiena eskaintzeko.

Horrez gain, ordea, garrantzitsua da indarkeria sexista ororen aurrean erantzun publiko integrala egituratzea, erasotuei arreta osoa eta lehentasunezkoa emateko mekanismoak izateaz gain, erasoaren aurrean erantzun publiko instituzional sendo eta argia plazaratzeko. Hutsune horri

erantzuteko sortu da txosten hau, Zumaiako Udalak duen protokoloaren gehigarria izango dena.

Datozen lerroetan, indarkeria sexista kasu ezberdinak deskribatu eta horien aurrean instituzio gisa eman beharreko pausuak eta pausu horiek emateko irizpideak zehaztuko dira.

2. Indarkeria sexista kasuen aurrean jarraitu beharreko erantzun publikoari buruzko irizpideak

Erantzun sendoa

Indarkeria sexistarekiko zero tolerantziaren kultura eraikitzeko ezinbestekoa da salaketan argi eta erabakitasunez jokatzea, eta edozein indarkeria ekintza ukatzen, normaltzen, minimizatzen edota justifikatzen duten argudio eta adierazpenak sistematiko desmuntatzea. Indarkeriaren adierazpen guztiak dira arbuia garriak. Oro har, gertatzen diren erasoen aurrean ematen den erantzun publikoa bideratu behar da emakumeen kontrako indarkeria ez dela toleratzen erakustera.

Errespetuzko erantzuna

Gerta daitezkeen egoeretan are sakonagora joz, biktimek, sarritan, bere burua ez erakustera jotze hori erasotuaeren gainean ezartzen den estigma sozialaren sintomatzat uler daiteke batetik eta, bestetik, norberaren babeserako neurritzat; horrenbestez, erakundeek errespetatu eta bermatu egingo dute hori. Eta garrantzitsua da horrela jokatzeko zeren eta, alde batetik, berekin baitakar erantzun publiko, egoki eta proportzionala kasuen banakako analisisan oinarritzea, errespetu eta enpatia arrazoi begi-bistakoen indarrez, eta bestetik erantzun horrek herritar guztientzako elementu hezitzaile bihurtu nahi baitu; beraz, berehalakotasunaren presioen aurrean blindatuta jardun behar da. Berehalakoa izan behar du

erasotuari ematen zaion arreta; horrela, erasotua eta beraren ingurua zaintzeak lehentasuna izango du.

Inpunitatea gelditzea

Indarkeria sexista gertatzen den kasuetan, erantzukizuna erasotzaileena da. Inoiz ez erasotuena. Eta inpunitaterik izan ez dadin, garrantzitsua da gizarteak eta erakundeek tinko erakustea erasotzaileen ekintzek eragiten duten arbuio soziala. Horregatik, erakundeek bultzatuko dituzten adierazpen publikoen irismenaren inguruko erabakia hartu behar denean, baloratu egingo da adierazpen publiko horrek murriztu dezakeen erasotzaileen inpunitatea indarkeria sexista gertatutako kasuetan; kontuan harturik, betiere, batzuen errugabetasun presuntzioa zein erasotuekiko errespetua.

Berbiktimizazioa saihestea

Indarkeria sexistaren sorburu estrukturala dela eta, sarritan, indarkeria sexista kasu bat denean, ez da behar bezala jarduten. Erasotuak kuestionatu egiten dira, edo jasandako indarkeriaren arduradun bihurtzen ditugu. Eta fenomeno horren eraginez, maiz askotan erasotuak errudun sentitzen dira. Horregatik, garrantzitsua da mezuetan gogoratzea indarkeriaren erantzukizuna indarkeria baliatzen dutenena dela, ez erasotuarena; eta saihestu egin behar da erasotuak estigmatizatzen dituen mekanismorik martxan jartzea.

3. Erantzuna eraikitzeo oinarriak

Jarraian, indarkeria sexistaren aurrean erantzuna eraikitzeo orduan, kontuan hartu beharreko irizpideak ezartzen dira:

- **Erasotuei zuzendutako lehentasunezko arreta:** Eraso sexista bat ikusten edo izan dela jakiten den bakoitzean, lehentasunezko jarduera erasotuei arreta ematea izango da, eta horien esku jarriko dira beharrezko bitartekoak. Aipatu moduan, erasotuei arreta egiteak hartzen dituzten erabakiak errespetatzea ere badakar berekin.

- **Erantzun bizkor, koordinatu eta eraginkorra:** Eraso sexista baten berri dugun bakoitzean, erantzuna bizkorra eta koherentea izango da, arazoan murgildutako erakunde guztiekin koordinatua, eta eraginkorra.

- **Erasotzaileak arbuiaitzea:** Indarkeria sexista indarkeriaz jokatzeko duenaren erantzukizuna da beti eta, beraz, erasoak eta erasotzaileak arbuiaitzeko eta gaitzesteko erantzuna sustatuko da.

- **Informazio konfiantzazkoa:** Gizarte alarma saihesteko arduraz jokatu behar da, gertaerei buruzko informazioa kontrastatuta. Oinarri sendorik gabeko erantzun batek ez dio zero tolerantziaren kulturari mesede egiten, eta kaltegarria izan daiteke erasotuentzat zein ustezko erasotzaileentzat.

- **Informazio konfidentziala:** Erasotuaren datuak eta erasoak nola gertatu den adierazten duten xehetasunak konfidentzialak dira eta 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoak⁴, babesten ditu. Hori dela eta, mota horretako informazioa erasotuen arretaren ardura duten teknikarien esku bakarrik egon daiteke. Beraz, erantzun publikoa antolatzeke behar den informazioak datu pertsonalak ekidingo ditu (erasotuaren izen-abizenak, helbidea...), eta baita ere erantzun publikoa prestatzeko ezinbestekoak ez diren erasoari buruzko xehetasunak.

- **Prebentziozko jarduera:** Egunero egiten den indarkeria sexistaren prebentziorako lana areagotu, indartu egingo da erasoren bat gertatzen denean, batez ere erasotuen inguruan, erasotuak estigmatizatzea eta errudun sentitzea saihesteko eta sentsibilizazioa sendotzeko.

ERASO SEXISTA KASU BATEN AURREAN EMAN BEHARREKO PAUSUAK

1. Pausoa. Protokoloa aktibatzea

Protokoloa beti aktibatuko da hurrengo kasuetan:

- Udalerrian gertatutako kasuetan.
- Udalerrietik kanpo gertatu direnean gertaerak, baina erasotua edo erasotzailea udalerrian bizi edota bertakoa denean.
- Aurreko bi kasuetan, erasotua defendatzen edo horri laguntzen joan eta horren ondorioz erasotua izan denean pertsona bat.

2. Pausoa. Erasotuekin eta haren ingurukoekin kontaktuan jarzea

Udala erasotuekin edo bere familiakoekin kontaktuan jarriko da eraso sexista baten berri duenean. Lehenengo kontaktu hori, ahal bada, emakume batek egingo du, erasotuari arreta segurua eta ahalik eta gertukoena eskainiko dela bermatzeko. Komenigarria da harremana egingo duen pertsona aldeztu aurretik zehaztuta izatea.

Lehenengo arreta horretan, Udalaren babesa eskaini eta bere eskura dauden bitartekoen berri emango zaie erasotuari edo bere senideei, gertatutakoaren inguruko galdera eta informazioetan sartu gabe. Horrez gain, gertatutakoaren aurrean horri aurre egiteko akzioak egingo dituela jakinaraziko zaie. Kontzentrazio baterako deialdi bat egiteko aukeraren berri emango da. Erasotua edo bere familia ez badator bat edo zalantzak baditu herritarrak elkartzen duen ekintza bat egiteko, erreakzio hori baloratuko da udalerri bakoitzean dagokion egiturari, baina ez da beti zertan erantzun publikoa bertan behar utzi behar.

Kontuan izan behar da erantzunaren urgentziak ezin izango duela beti erasotuen edota bere familiaren erreakzionatzeko behar eta gaitasunekin bat egin, beraz, ezin zaie erantzun publikoa emateko arloan hartutako erabakien erantzule egin. Komunikazio errespetutsua izango

da, baina erantzun publikoa ematearen erabakia autoritate foral, udalerrikoei eta autonomikoei dagokie.

Aipatutakoa, baliagarria da erasotua adin txikikoa denean eta prozesuan zehar bere familiarekin edota tutorearekin egiten denean komunikazioa. Honek guztiak ez du alde batera utzi behar erasotuaren eta bere familiaren garrantzia, eta ezinbestekoa da inguruaren eta udal politikarien gertutasuna sentitzea.

3. Pausoa. Erasoren gaineko informazioa biltzea

Erasoren gaineko informazioa biltze aldera, udaleko protokoloan parte hartzen duten eragileekin harremanetan jarriko da berdintasuneko teknikaria edo gizarte zerbitzuetako teknikaria.

Horrekin batera, Mugimendu Feministarekin etengabeko kontaktuan egongo da berdintasun teknikaria. Mugimendu Feministak eduki dezakeen informazioagatik eta baita erantzuna koordinatzeko ere.

Garrantzitsua da adieraztea, jaso beharreko informazioaren konfidentzialtasuna kontuan hartuta, arretaren ardura duten udal teknikariei (gizarte zerbitzuetako teknikariak) edo arreta protokoloak koordinatzeko ardura dutenei (berdintasun teknikariak) dagokiela informazio hori jasotzea eta Udal Gobernuari helaraztea, erantzun publiko egokia balioetsi eta diseinatu dezaten gainontzeko udaleko ordezkari politikoekin batera.

4. Pausoa. Eragile sozialekin koordinatzea (Mugimendu Feminista, bestelakoak...) Erasoren berri jakindakoan

Mobilizazio edo elkarretaratzeen deialdiak udalerriko eragile sozialekin era koordinatuan egitea, bai deialdi bateratuak egiteko, bai udalerrian egindako deialdietara batzeko edo, gutxienez, bi deialdiak aldi berean ez gertatzeko.

5. Pausoa. Bozeramaileen Batzordearen premiazko deialdia egitea

Erasoaren balorazioa egin eta gero, Udalak Bozeramaileen Batzordea deituko du, adostutako ekintzak onartzeko.

6. Pausoa. Udal mailako erantzuna ematea

Arestian aipatu ditugun elementu guztiak aintzat harturik, urratu diren eskubideen larritasun maila, gizartean izandako eragina eta erasotik eratorritako beste elementu batzuk baloratuko ditu, horrela, erantzun publikoaren proposamena garatu ahal izateko.

5. Erantzun eszenatokiak

Protokoloa maila ezberdinetan aktibatzen da eraso sexistatzat har daitezkeen gertaera guztien aurrean. Horretarako, erantzun eszenatoki ezberdinak ezarri dira, eskubide urraketaren larritasunaren arabera.

1. Eszenatokia:

- Bikotekideak, bikotekide ohiak, senide batek, ezagun edo ezezagun batek emakumea hiltzea edo hiltzen saiatzea.
- Emakumea sexu eraso bidez erailtzen dutenean
- Genero indarkeria pairatu duen emakume baten seme-alabak hiltzea edo hiltzen saiatzea.
- Indarkeria sexista pairatu duena hiltzea, denbora bat lehenago izandako eraso baten ondorioz.

Ekintzak:

1. Urgentziazko osoko bilkura deituko da 24 ordu igaro baino lehen.
2. Bilkura edo batzorde horrek, gaitzespenerako eta familia babesteko deklarazio instituzionala onartuko du.

3. Biztanleriari egingo diren jardueretan parte hartzeko deia egingo zaio. Mugimendu Feministak deialdia eginga badu, deialdi horretara batuko da Udala. Momentu oro biktimaren familiari egoeraren berri emango zaio.
4. Udaletxeak egindako deialdietan parte-hatzeko eskaera bat bidaliko dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendariari.

Ekintzarako jarraibideak:

1. Salaketa eta gaitzespenaren jakinarazpena.
2. Erasoa era publiko batean salatzeko egindako deialdi instituzionala (Mugimendu Feministak deialdia eginga badu, bertara batzeko deia).
3. Udaletxe aurrean "minutu bat" isilik igarotzea eraso gertatu eta hurrengoko eguneko 12:00an.
4. Udaleko langileak deitzea erantzun publikoan parte har dezaten.
5. Salaketaren ikurra toki publiko baten jartzea (pankarta edo puntu lila)
6. Salaketa jakinarazpena komunikabide ezberdinetan zabaltzea.
7. Erasoaren hurrengo egunerako programaturik dauden ekintza ezberdinak (jaietakoak adibidez) bertan behera utziko dira.
8. Salaketa publikorako ekintzan parte hartzea.

2. Eszenatokia:

- Erasotuaren osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten lesio larriak eragin dituen eraso.
- Sexu eraso, sexu abusua eta erasoarekin batera, hau larritzen duten beste egoera batzuk; hala nola bahiketa, eraso kolektiboa, konortea galaraztea edo konorte galtze hori erasotzeko baliatzea.

- Sexu jazarpena edota jazarpen sexista laneko edota irakaskuntzako esparruan edo beste esparru batzuetan, jazarpen hori denboran zehar errepikatzeko aukera dagoenean.
- Erasotzailea edo erasotzaileak funtzionario publikoak, segurtasun gorpuetako langileak edo udalerriko agente esanguratsuetako langileren bat den kasuetan edota eraso bat baino gehiagotan eman bada erasotzaile berdinen eskutik (erasotzaileen bikote edo bikote ohia izan edo izan ez den kasuetan), leku berean eta hemen aurreikusten ez diren egoeretan, delitua larriagotzat hartu ahal izango da gerora begira.

Ekintzak:

1. Udalak urgentziazko bozeramaileen batzordea deituko du 24 ordu igaro baino lehen.
Udaleko teknikariek gertatutako ekintzak kontrastatu eta baieztatuko dituzte eta bertatik ateratako ondorioak bozeramaileen batzordeari jakinaraziz.
2. Bozeramaileen batzordeak deklarazio instituzionala onartuko du.
3. Erasotua edo bere familia ados badaude, herritarrei egingo diren jardueretan parte hartzeko deia egingo zaio. Mugimendu Feministak deialdia eginga badu, deialdi horretara batuko da Udala. Momentu oro erasotuari eta bere familiari egoeraren berri emango zaio.

Ekintzarako jarraibideak:

1. Salaketa eta gaitzespenaren jakinarazpen instituzionala.
2. Erasoa era publiko batean salatze egindako deialdi instituzionala (Mugimendu Feministak deialdia eginga badu, bertara batzeko deia).

3. Udaleko langileak deitzea erantzun publikoan parte har dezaten, goizerako deialdia egiten bada.
4. Salaketaren ikurra, pankarta, udaletxeko balkoian.
5. Salaketa jakinarazpena komunikabide ezberdinetan zabaltzea.
6. Salaketa publikorako ekintzan parte hartzea.

3. Eszenatokia:

- Leku publikoetan gertatutako eraso sexistak.
- Lesio gabeko edo lesio oso larririk gabeko eraso bat, zeinak erasotuaren ezaugarriengatik, udalerrigatik edo beste edozein egoera dela eta alarma sozial berezi edo garrantzitsutzat jo daitekeena eragin duenean.
- Balorazio bat egin ondoren eskubideen aurkako urrapen berezitzat jo eta arestian aipatu ez den edozein egoeraren aurrean

Ekintzak:

1. Udalak urgentziazko bozeramaileen batzordea deituko du 24 ordu igaro baino lehen.
Udaleko teknikariek gertatutako ekintzak kontrastatu eta baieztatuko dituzte eta bertatik ateratako ondorioak bozeramaileen batzordeari jakinaraziz.
2. Bozeramaileen batzordeak deklarazio instituzionala onartuko du.
3. Erasotua edo bere familia ados badaude, herritarrei egingo diren jardueretan parte hartzeko deia egingo zaio. Mugimendu Feministak deialdia eginga badu, deialdi horretara batuko da Udala. Momentu oro erasotuari eta bere familiari egoeraren berri emango zaio.

Ekintzarako jarraibideak:

1. Salaketa eta gaitzespenaren jakinarazpen instituzionala.

2. Erasoa era publiko batean salatzeko egindako deialdi instituzionala (Mugimendu Feministak deialdia egin a badu, bertara batzeko deia).
3. Udaleko langileak deitzea erantzun publikoan parte har dezaten, deialdia goizean egiten bada.
4. Salaketaren ikurri toki publiko baten jartzea (pankarta edo puntu lila).
5. Salaketa jakinarazpena komunikabide ezberdinetan zabaltzea.
6. Salaketa publikorako ekintzan parte hartzea.

6. Protokoloaren jarraipena

Genero indarkeriaren auzietan jarduteko protokoloarekin batera aztertuko da erantzun instituzionalaren protokoloa, adostutakoa betetzen ari den edo ez aztertu eta beharreko hobekuntzak txertatzeko.

5 .II. ERANSKINA: TESTU EREDUAK

Zumaian eraso sexista

Zumaiako Udalak erabateko gaitzespena adierazi nahi du gertatutako eraso sexistaren aurka, eta babes eta elkartasun osoa adierazi nahi die erasotuari eta bere ingurukoei. Udalak bere esku dauden eta beharrezko zaizkion baliabide guztiak jarriko ditu erasotua izandako emakumearen eskura.

Beste behin ere, argi utzi nahi dugu ez dugula emakumeen aurkako inolako erasorik onartzen. Indarkeria sexistak erasotzaile eta erasotu banakakoak ditu, noski, baina ez dira kasualitate hutsa, ez dira kasu

isolatuak; emakumeak indarkeriaz tratatzen dituen sistema baten ondorio dira, indarkeria sexista estrukturala da.

Instituzioen ardura da herritarron giza eskubideak bermatzea eta Zumaiako Udalak lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du indarkeria sexistaren adierazpen guztien aurkako borrokan. Halaber, Udalak herritar guztion inplikazioa eskatzen du. Izan ere, gutako bakoitzaren jarrera aktiboa erabakigarria izan daiteke eraso bat saihesteko.

Horrenbestez, Zumaiako Udalak bat egiten du Mugimendu Feministak egindako elkarretaratze deialdira / dei egiten du elkarretaratzera eguna/ordua/tokia eta dei egiten die herritar guztiei ekitaldi horietan parte hartzera

Zumaiako erailketa /sexu erasoak

Zumaiako Udalak erabateko gaitzespen adierazi nahi du gertatutako erailketa/sexu erasoaren aurka, eta babes eta elkartasun osoa adierazi nahi die erasotuari eta bere ingurukoei/ hildakoaren familia eta gertukoei. Udalak dituen informazio eta baliabide guztiak jarri ditu erasotutako emakumearen esku/eraildako emakumearen familiaren esku, (baita bere onera etortzeko prozesuan behar izan dezakeen laguntza guztia ere).

Zumaiako Udalak gertaeraren berri izan duenetik eta erasoari/erailketari buruzko informazioa egiaztatu, alderatu eta zabaldu ondoren, emakumeen aurkako indarkeriari erantzuteko protokoloa aktibatu du informazioa baloratzeko eta, erasotuari/erasotuaren gertukoei egokia den arreta eman ahal izateko, beharrezkoa den koordinazioa ziurtatzeko.

Arreta egokia bideratu dela ziurtatu eta informazioa baloratu eta gero, Zumaiako Udalak hurrengo erabakiak hartu ditu: alde batetik, Udalaren

jarrera irmoa adieraztea, argi eta garbi esateko ez ditugula inola ere onartzen emakumeen eskubideak urratzen dituzten erasoak; eta, bestetik, herritar guztiei bide bat eskaintzea, gaitzespen argi bat agertu dezaten emakumeen aurkako indarkeriaren aurka, indarkeria ez baita soilik eraso edo hilketa pairatzen duten emakumeen arazoa, jendarte guztiarena baizik.

Urte honetan, (kopurua) dira indarkeria sexistaren ondorioz eraildako emakumeak Euskal Herrian. Indarkeria sexistak erasotzaile eta erasotu banakakoak ditu, noski, baina ez dira kasualitate hutsa, ez dira kasu isolatuak; emakumeak indarkeriaz tratatzen dituen sistema baten ondorio dira, indarkeria sexista estrukturala da.

Instituzioen ardura da herritarron giza eskubideak bermatzea eta Zumaiako Udalak lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du indarkeria sexistaren adierazpen guztien aurkako borrokan. Halaber, Udalak herritar guztion inplikazioa eskatzen du. Izan ere, gutako bakoitzaren jarrera aktiboa erabakigarria izan daiteke eraso bat saihesteko.

Horrenbestez, Zumaiako Udalak bat egiten du Mugimendu Feministak egindako elkarretaratze deialdira / dei egiten du elkarretaratzera eguna/ordua/tokia eta dei egiten die herritar guztiei ekitaldi horietan parte hartzera.

Zumaiatik kanpo erailketa

Zumaiako Udalak gogor salatu nahi du (herrian) gertatutako erailketa sexista eta hildakoaren familia eta gertukoei elkartasun osoa adierazi nahi die.

Urte honetan, (kopurua) dira indarkeria sexistaren ondorioz eraildako emakumeak Euskal Herrian. Udalak argi utzi nahi du ez duela giza eskubideen urraketarik onartzen, ez Zumaian eta ez beste inon ere. Eta honen aurrean, herritar guztien inplikazioa eskatzen du. Izan ere, herritarron ardura ere bada indarkeria ororen aurrean jarrera aktiboan jokatzeara.

Horrenbestez, Zumaiako Udalak bat egiten du Mugimendu Feministak egindako elkarretaratze deialdian / dei egiten du elkarretaratzera eguna/ordua/tokia eta dei egiten die herritar guztiei ekitaldi horietan parte hartzera.

A ERANSKINA:

ONESPEN AKTA EREDUA

Zerbitzu/ administrazioaren izena	IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDURAKO ONESPEN ETA INFORMAZIO AKTA
--	--

Izena eta Abizenak:
NAN / Pasaportea / Egoitza baimena / Edo identifikaziorako bestelako dokumentua:

Erakutsi duen interesean oinarrituta, dokumentu honen bidez baimena ematen du:

Bere _____ datu _____ pertsonalak
_____ (a)ren esku jartzeko
(bideratzen den zerbitzu) honek kudeatzen dituen arreta zerbitzu
eta bestelako errekursoetara sarrera izateko.

☐

Bai

☐

Ez

(dagokiona adierazi)

Data:

Sinadura:

B ERANSKINA:

BIDERATZE DOKUMENTUAREN EREDUA

<i>Zerbitzu/ administrazioaren izena</i>	INDARKERIA SEXISTAREN BIKTIMA IZAN DENARI BURUZKO INFORMAZIOAREN BIDERAKETA
---	--

KASUA HAUTEMAN/ARTATU DUEN PROFESIONALAREN DATUAK:

Profesionalaren izen eta abizenak:

Zerbitzua:

BIKTIMAREN DATUAK:

Izen eta abizenak:

NAN / Pasaportea / Egoitza baimena / Edo identifikaziorako bestelako dokumentua:

Kontakturako telefono
zenbakia:

Helbidea (babestutako etxebizitza ez den heinean):

**INDARKERIA GERTAERA ETA BIDERAKETARAKO ESANGURATSUA IZAN
DAITEKEEN INFORMAZIOA:**

Data:

Kasua bideratzen duen profesionalaren sinadura:

Protokoloa sinatu dutenak:



[Signature] *[Signature]*



[Signature]



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA
SOLDADURA ZENTROA

[Signature]



[Signature]



[Signature] Korta



[Signature]



[Signature]

Zumaiako
Udala



ZUMAI
BIZITZEKO
DA

[Signature]